



TOKI ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA (2024ko maiatzaren 31)

ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- **Lege organikoaren proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita 7/2014 Lege Organikoa, azaroaren 12koa, Europar Batasunean zigor-aurrekarien informazioa trukatzeari eta zigor-arloko ebazpen judizialak aintzat hartzeari buruzkoa dena, Zigor Aurrekariari buruzko Europako Informazio Sistemaren gainera Europar Batasuneko araudira egokitzeko**

Ganberako Mahaiak, 2024ko martxoaren 22an egindako bileran, urgentziatzeko prozedura bidez, Justizia Batzordeari irizpena eskatzea erabaki zuen. Erregelamenduaren 109. eta 93. artikuluei jarraikiz. Halaber, erabaki zuen Gorte Nagusien aldizkari ofiziala argitaratzea, eta zuzenketak egiteko zortzi egun balioduneko epea ezartzea, zeina 2024ko apirilaren 4an amaituko baita.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-17-1.PDF#page=1

- **Lege organikoaren proiektua, Justiziako Zerbitzu Publikoaren efizientzia-arloko neurriena eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesa babesteko eta defendatzeko ekin-tza kolektiboena.**

Ganberako Mahaiak, 2024ko martxoaren 22an egindako bileran, urgentziatzeko prozedura bidez, Justizia Batzordeari irizpena eskatzea erabaki zuen. Erregelamenduaren 109. eta 93. artikuluei jarraikiz. Halaber, erabaki zuen Gorte Nagusien aldizkari ofiziala argitaratzea, eta zuzenketak egiteko zortzi egun balioduneko epea ezartzea, zeina 2024ko apirilaren 4an amaituko baita.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-16-1.PDF#page=1

- **Oinarritzko legearen proiektua, basoko suhiltzaileena.**

Ganberako Mahaiak, 2024ko martxoaren 12an egindako bileran, haren onarpena agindu zion Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Batzordeari, legegintzako eskumen osoz,



Erregelamenduaren 148. artikuluari jarraikiz. Halaber, erabaki zuen Gorte Nagusien aldizkari ofiziala argitaratzea, eta zuzenketak egiteko hamabost egun balioduneko epea ezartzea, zeina 2024ko apirilaren 5ean amaituko baita.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-15-1.PDF#page=1

- Oinarrizko legearen proiektua, baso- eta ingurumen-agenteena.

Ganberako Mahaiak, 2024ko martxoaren 12an egindako bileran, haren onarpena agindu zion Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Batzordeari, legegintzako eskumen osoz, Erregelamenduaren 148. artikuluari jarraikiz. Halaber, erabaki zuen Gorte Nagusien aldizkari ofiziala argitaratzea, eta zuzenketak egiteko hamabost egun balioduneko epea ezartzea, zeina 2024ko apirilaren 5ean amaituko baita.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-14-1.PDF#page=1

BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio (1278-2024), Etxebizitza-eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen manu hauen aurkakoa: 2. artikuluko c), d), e), f), g), h), i), j), m), n), o), p), q), r) eta s) letrak; 12. artikulua; 15. artikuluko 1.d) eta 4. apartatuak; 16. artikulua; 17. artikulua; 18. artikuluko 1., 4., 5. eta 6. apartatuak; 23. artikulua; 24. artikulua; 27. artikuluko 1. apartatuko hirugarren paragrafoa eta 2. eta 3. apartatuak; 28. artikulua; 29. artikulua; lehenengo xedapen iragankorreko bigarren paragrafoa; bigarren xedapen iragankorra; eta azken xedapenetako zazpigarreneko 1. apartatua. (2024ko apirilaren 12ko BOE)

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak, 2024ko apirilaren 9ko probidentzia bidez, izapidera onartu du Kataluniako Generalitateko gobernuak sustatutako 1278-2024 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa, Etxebizitza-eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen manu hauen aurkakoa: 2. artikuluko c), d), e), f), g), h), i), j), m), n), o), p), q), r) eta s) letrak; 12. artikulua; 15. artikuluko 1.d) eta 4. apartatuak; 16. artikulua; 17. artikulua; 18. artikuluko 1., 4., 5. eta 6. apartatuak; 23. artikulua; 24. artikulua; 27. artikuluko 1. apartatuko hirugarren paragrafoa eta 2. eta 3. apartatuak; 28. artikulua; 29. artikulua; lehenengo xedapen iragankorreko bigarren paragrafoa; bigarren xedapen iragankorra; eta azken xedapenetako zazpigarreneko 1. apartatua.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/12/pdfs/BOE-A-2024-7201.pdf>



- **Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa, (1306-2024), Etxebizitza-eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen manu hauen aurkakoa: 3. artikulua; 11.2 artikulua; 16. artikulua; 18. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuak; 19. artikuluko 2. eta 3. apartatuak; 27.3 artikulua; hirugarren xedapen gehigarria; bigarren xedapen iragankorreko 1. apartatuta; hirugarren xedapen iragankorra; azken xedapenetako bosgarrena; eta azken xedapenetako zazpigarrena. (2024ko apirilaren 12ko BOE)**

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak, 2024ko apirilaren 9ko probidentzia bidez, izapidera onartu du Galiziako Xuntak sustatutako 1306-2024 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa, Etxebizitza-eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen manu hauen aurkakoa: 3. artikulua; 11.2 artikulua; 16. artikulua; 18. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuak; 19. artikuluko 2. eta 3. apartatuak; 27.3 artikulua; hirugarren xedapen gehigarria; bigarren xedapen iragankorreko 1. apartatuta; hirugarren xedapen iragankorra; azken xedapenetako bosgarrena; eta azken xedapenetako zazpigarrena.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/12/pdfs/BOE-A-2024-7202.pdf>

- **Xedapen autonomikoen aurkaratzea (V. titulua, KALO) (2159-2024), Kataluniako Parlamentuko Mahaiaren 2024ko otsailaren 20ko erabakia dela eta. Erabaki horren bidez, izapidera onartzen da «Kataluniako independentzia-deklarazioari buruzko Legearen proposamena» izeneko herri-ekimen legegilea. (2024ko apirilaren 12ko BOE)**

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak, 2024ko apirilaren 9ko probidentzia bidez, izapidera onartu du Espainiako gobernuak Kataluniako Parlamentuaren aurka sustatutako 2159-2024 xedapen autonomikoen aurkaratzea (V. titulua, KALO), Kataluniako Parlamentuko Mahaiaren 2024ko otsailaren 20ko erabakia dela eta (2024ko otsailaren 22ko Kataluniako Parlamentuaren Aldizkari Ofiziala, 771. zk). Erabaki horren bidez, izapidera onartzen da «Kataluniako independentzia-deklarazioari buruzko Legearen proposamena» izeneko herri-ekimen legegilea. Jasota uzten da Espainiako gobernuak Espainiako Konstituzioaren 161.2 artikulua argudiatu duela, eta, horren bidez, etenda geratzen da aurkaratu den ebazpena 2024ko martxoaren 27tik aurrera, aurkaratzea data horretan jarri baitzen zen.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/12/pdfs/BOE-A-2024-7203.pdf>

- **363/2024 Errege Dekretua, apirilaren 9koa, Europako Parlamenturako hauteskunderen deialdia egiten duena. (2024ko apirilaren 16ko BOE)**



Errege-dekretu bidez deitzen da Europako Parlamenturako hauteskundeetara. 2024ko ekainaren 9an egingo dira.

61 diputatu joango dira Europako Parlamentura, Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 215. artikuluari eta Europako Parlamentuaren osaketa finkatzen duen Europar Kontseiluaren 2023ko abenduaren 22ko 2023/2061 (EB) Erabakiaren 3. artikuluari jarraikiz.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/16/pdfs/BOE-A-2024-7479.pdf>

- 366/2024 Errege Dekretua, apirilaren 9koa, irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuaren bidez irakaskuntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoa (atzerriko goi-mailako hezkuntza-sistemen esparruan lortutako tituluak homologatzea eta baliokidetzatza aitortzea). (2024ko apirilaren 19ko BOE)

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoak, 2024ko martxoaren 11ko bileran, irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuak irakaskuntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeko erabakia hartu zuen (atzerriko goi-mailako hezkuntza-sistemen esparruan lortutako tituluak homologatzea eta baliokidetzatza aitortzea). Erabaki hori Espainiako gobernuari bidali zaio, errege-dekretu bidez onartzeko.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/19/pdfs/BOE-A-2024-7805.pdf>

- 367/2024 Errege Dekretua, apirilaren 9koa, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuak osasunaren, zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako estatuko zerbitzuak gehitzeari buruzkoa (nazioarteko babes-sistemaren autonomia fasea). (2024ko apirilaren 19ko BOE)

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoak, 2024ko martxoaren 11ko bileran, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bitartez osasunaren, zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako estatuko zerbitzuak gehitzeari buruzko erabakia hartu zuen (nazioarteko babes-sistemaren autonomia fasea). Erabaki hori Espainiako gobernuari bidali zaio, errege-dekretu bidez onartzeko.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/19/pdfs/BOE-A-2024-7806.pdf>



- 368/2024 Errege Dekretua, apirilaren 9koa, bidaiariak aldirietako trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankor horretan jasota dagoen batzorde mistoak erabaki zuen, 2024ko martxoaren 11ko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea gai honi loturiko Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak: bidaiariak aldirietako trenbidez garraiatzeko zerbitzuak. Beraz, erabaki hori Espainiako gobernuari bidali zaio, errege-dekretu baten bidez onetsi dezan.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/19/pdfs/BOE-A-2024-7807.pdf>

- Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa (1863-2024), errege lege-dekretu honen aurkako: 6/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 19koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituena, justiziako zerbitzu publikoaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan. (2024ko apirilaren 27ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/27/pdfs/BOE-A-2024-8474.pdf>

- TDF/379/2024 Agindua, apirilaren 26koa, zuzendari publiko profesionalen lanpostuak betetzeko prozeduren berezitasunak arautzekoa eta horiek kudeatzeko tresnei buruzkoa, abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren esparruan. Errege lege-dekretu horren bidez onartzen dira Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak, justiziako zerbitzu publikoaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan. (2024ko apirilaren 30eko BOE)

Agindu horren xedea da lanpostuak hautapen libre bidez betetzeko prozedurak zuzendari publikoen izendapenera egokitzea, justiziako zerbitzu publikoaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuaren 125.2 artikuluari jarraikiz.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/30/pdfs/BOE-A-2024-8609.pdf>



- TDF/380/2024 Agindua, apirilaren 26koa, Estatuko Administrazioako giza baliabideen plangintza estrategikoari buruzkoa. (2024ko apirilaren 30eko BOE)

Agindu horren xedea da giza baliabideen plangintza estrategikorako planak eta tresnak egiteko arauak eta gidalerroak ematea, justiziako zerbitzu publikoaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuaren 107. artikuluari jarraikiz.

Halaber, aginduaren xedea da Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren jarduketak mugatzea, giza baliabideen plangintza estrategikoari dagokionez.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/30/pdfs/BOE-A-2024-8610.pdf>

- 443/2024 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baita 5G sare eta zerbitzuen Espainiako Segurtasun Eskema. (2024ko maiatzaren 1eko BOE)

5G sare eta zerbitzuen Espainiako Segurtasun Eskema onartzen da, bosgarren belaunaldiko komunikazio-sare eta -zerbitzuen segurtasuna bermatzeko betekizunei buruzko martxoaren 29ko 7/2022 Errege Lege Dekretuan xedatutakoa garatuta, bereziki, IV. kapitulua aplikatuta.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/05/01/pdfs/BOE-A-2024-8715.pdf>

- Ebazpena, 2024ko maiatzaren 8koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketetan eta eratorrietan aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzekoa. (2024 maiatzaren 10eko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/05/10/pdfs/BOE-A-2024-9394.pdf>



Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- **LA GESTIÓN DE LOS FONDOS DE RECUPERACIÓN EN EL ÁMBITO LOCAL**, Ricardo RIVERO ORTEGA (CEMCI aldizkari digitalean argitaratu zen, 2024ko urtarril-martxoko alean)

<https://revista.cemci.org/numero-61/pdf/tribuna-3-la-gestion-de-los-fondos-europeos-de-recuperacion-en-el-ambito-local.pdf>

- **PLANIFICACIÓN, GESTIÓN Y EVALUACIÓN DE POLÍTICAS PÚBLICAS**, Nuria BOLAÑOS MARQUEZ (CEMCI aldizkari digitalean argitaratu zen, 2024ko urtarril-martxoko alean)

<https://revista.cemci.org/numero-61/pdf/tribuna-1-planificacion-gestion-y--evaluacion-de--politicas-publicas.pdf>

- **LA INTEROPERABILIDAD COMO INSTRUMENTO ESTRATÉGICO DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA**, M^a Ángeles GONZÁLEZ BUSTOS (CEMCI aldizkari digitalean argitaratu zen, 2024ko urtarril-martxoko alean)

<https://revista.cemci.org/numero-61/pdf/tribuna-2-la-interoperabilidad-como-instrumento-estrategico-de-la-administracion-electronica.pdf>

- **Solicitud de permanencia en el servicio activo tras alcanzar la edad de jubilación. Sentido positivo del silencio administrativo. Sentencia del Tribunal Supremo 1638/2023**, Miryam Quintanilla Navarro (Acento Local blogean argitaratua 2024ko apirilaren 19an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/solicitud-de-permanencia-en-el-servicio-activo-tras-alcanzar-la-edad-de-jubilacion-sentido-positivo-del-silencio-administrativo-sentencia-del-tribunal-supremo-1638-2023/>

- **La complejidad del procedimiento de elaboración de ordenanzas: la anulación de la Ordenanza de Terrazas del Ayuntamiento de Madrid**, Cayetano Prieto Romero (Acento Local blogean argitaratua 2024ko apirilaren 24an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-complejidad-del-procedimiento-de-elaboracion-de-ordenanzas-la-anulacion-de-la-ordenanza-de-terrazas-del-ayuntamiento-de-madrid/>

- **Retos para el IBI: el sistema de valoración y la racionalización de los beneficios fiscales**, José María Utande San Juan (Acento Local blogean argitaratua 2024ko maiatzaren 8an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/retos-para-el-ibi-el-sistema-de-valoracion-y-la-racionalizacion-de-los-beneficios-fiscales/>



Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- ***Acerca de la integración de solvencia por medios externos en la contratación pública***, M.^a Elena López de Ayala Casado (Acento Local blogean argitaratua 2024ko apirilaren 30ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/acerca-de-la-integracion-de-solvencia-por-medios-externos-en-la-contratacion-publica/>

- ***Diez años de la directiva de concesiones***, Eugenia López Mora (ObCP blogean argitaratua 2024ko apirilaren 15ean)

<https://www.obcp.es/opiniones/diez-anos-de-la-directiva-de-concesiones>

- ***El nuevo decreto reglamentario de la Ley de Compras y Contrataciones en República Dominicana: otra innovación hacia las compras públicas inteligentes***, José Ignacio Hernández G. (ObCP blogean argitaratua 2024ko apirilaren 22an)

<https://www.obcp.es/opiniones/el-nuevo-decreto-reglamentario-de-la-ley-de-compras-y-contrataciones-en-republica>

- ***Transparencia en Los Contratos Públicos***, Juan Martínez Martínez (ObCP blogean argitaratua 2024ko apirilaren 29an)

<https://www.obcp.es/opiniones/transparencia-en-los-contratos-publicos>

- ***La definición de la onerosidad en los contratos públicos: entre Aristóteles y Marx***, Carlos Alberto Amoedo Souto (ObCP blogean argitaratua 2024ko maiatzaren 6an)

<https://www.obcp.es/opiniones/la-definicion-de-la-onerosidad-en-los-contratos-publicos-entre-aristoteles-y-marx>



Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio-Organoa (KEAO)

- 044/2024 Erabakia, 2024ko martxoaren 6koa. Villabonako haurrentzako zerbitzua eta nera-beentzako zerbitzua ematea

Ebazpenaren laburpena: Adjudikazioa. Objektu soziala: interpretazio zabala, EJSN kodeen garrantzirik eza ondorio horietarako. Kaudimena: kaudimen ekonomikoa, kontratuaren eremuko urteko negozio-bolumenean oinarritua, Merkataritza Erregistroan gordailututako urteko kontu guztiak, ondo gauzatu izanaren ziurtagirien bidez zehaztutako zifrak; behar bezala egiaztatutako kaudimen teknikoa (antzeko zerbitzuak).

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/44_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia44_2024.pdf

- 045/2024 Erabakia, 2024ko martxoaren 7koa. Higiezin arloko aholkularitza juridiko espezializatua, Zorrotzaurreko eta Zorrotzako Muturreko hiri-eremuaren garapen ekonomikoaren eta erabileraren eremuko proiektuak garatu, kudeatu eta abian jartzeari dagokionez.

Ebazpenaren laburpena: Adjudikazioa. Motibazioa eta diskrezionalitate teknikoa; doktrina orokorra; diskrezionalitatea zuzen erabiltzea; errekurtsogileak txosten teknikoak judizio inpartzial eta adituaren orde zuzen berea jarri nahi du; diskrezionalitate teknikoak barne hartzen du, halaber, baloratutako materiala hautatzeko ahalmena eta eskaintza bakoitzaren abantailak balioestea, eta ez dago jasota arbitrariotasunik edo desberdintasunik balioespenean.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/45_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia45_2024.pdf

- 048/2024 Erabakia, 2024ko martxoaren 15koa. Gai organikoetarako alboko kargako eduki-ontziak eta itxiera elektronikoko bidezko sarbide-kontrolerako sistema hornitzea, Europar Batasunak – Next Generation finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Ebazpenaren laburpena: Baldintza-agiriak. Amaitutako prozedura, errekurtsuaren xedea gerora galtzeagatik (botere adjudikatzaileak adjudikazio-prozeduran atzera egitea).

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/48_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia48_2024.pdf



- 052/2024 Erabakia, 2024ko martxoaren 22koa. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko eraikuntzen segurtasun pribatuaren eta zaintza zerbitzua

Ebazpenaren laburpena: Adjudikazioa. Interes-gatazka; espedientea prestatzean eta kontratua adjudikatzeko prozeduran eragina duen interes-gatazka; interes-gatazka alegatzen duenak gutxienez elementu objektiboak aurkeztu behar ditu botere adjudikatzailerak egiazta ditzan; errekurtsua suposizioetan oinarritzen da, eta ez da identifikatzen gatazkan dagoen pertsonak espedientea prestatzean edo adjudikazio-prozeduran parte hartu izanaren zantzurik; ez da nahikoa alegatzea errekurtsogilearen eskaintzaren aurkako eta gatazkan sartuta dagoen lizitatzaileraren aldeko diskriminazio-tratamenduak erakusten duela azken horrek eragina duela; kontratua gauzatzean interes-gatazka izatea, kaudimen teknikorik ez izatea, lizitatzailerari lotutako pertsona izatea eta botere adjudikatzailerak kontratuaren exekuzioan duen kontrolean edo zaintzan eragina izatea. Ebazpenaren ondorioak: interes-gatazkan sartuta dagoen lizitatzailerak baztertzea, gatazka eskaintzaren eduki berean datza (prozedura ireki batean aldaezina), interes-gatazkan oinarritutako arrazoiak hautemateak adjudikaziodunaren eskaintza baztertzea eta jarduketan atzeragira dakar, eta ez da beharrezkoa aurkaratzeko gainerako arrazoiak aztertzea.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/52_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia52_2024.pdf

- 053/2024 Erabakia, 2024ko martxoaren 22koa. Udal saneamendu-sarearen kudeaketa-, garbiketa-, mantentze- eta eragiketa-zerbitzua, eta mendi-hegaletako ezponden eta lubeten egonkortasunaren eta lurpeko jariatze-uren kontrola eta jarraipena

Ebazpenaren laburpena: Adjudikazioa. Espedientea errekurtsu bidez eskuratzea; errekurtsogileak nahikoa informazio izan du errekurtsu bat artikulatzeko, anormalki baxuegia izatea justifikatzeko informazioa emateak proposamena egiteko barne-prozesuan sartzea ekarriko luke. Bazterketa: ez dago baztertze arrazoirik. Eskaintza anormala: anormaltasuna egiaztatze prozedura zuzena izan da, ez dago epe jakinik eskaintzaren bideragarritasunaren justifikazioa aurkezteko, SPKLk «epe nahikoaz», kontratuaren konplexutasun teknikoaz eta prozeduraren izaera kontraesankorraz bakarrik hitz egiten du, ez da beharrezkoa hasiera batean susmagarria zen operadoreak kontratua betearazteko zaintza-mekanismoak adjudikazio-ebazpenean sartzea, legezketasun hutsezko salaketa; eskaintza anormalei buruzko doktrina orokorra; eskaintza baxuegiaren justifikazioa onartzea nahikoa da, diskrezionalitate teknikoak, txosten teknikoak onartzea, ez da nahitaezkoa azalpen bakoitzarekin batera kostuen aurrezpena sartzea, lizitatzaileraren kaudimena oinarri hartuta justifikatzea, baldintza-agiriekin ez dute nahitaezko sailkapena eskatzen Balio-judizioaren mendeko adjudikazio-irizpideak aplikatzeko arrazoiak eta diskrezionalitatea:



doktrina orokorra; ebaluazio zuzena. Froga. Ez da sartzen proposatutako frogan, ez baitago eztabaidarik egitatei buruz, gai juridikoei buruz baizik.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/53_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia53_2024.pdf

- 054/2024 Erabakia, 2024ko martxoaren 22koa. Udaleko berdeguneak, parkeak, lorategi-eremuak, zuhaixkak eta heskaiak, jardinerak, bideak segatzeta eta zuhaitzak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzua

Ebazpenaren laburpena: Adjudikazioa. Formulari lotutako adjudikazio-irizpidea: 0 euroko eskaintza, formula ez zen aurkaratu bere garaian, 0-ko prezioa baimenduta dago baldintza-agirietan, eta ahalik eta abantailarik handiena ematen du prezioa neurtzen duen adjudikazio-irizpide batean, formula aplikagarria da eta ez dakar matematikoki zehaztugabeak diren emaitzak lortzea, ez dago hautemateko tarterik formulari lotutako irizpideetan, ezin da gaitzetsi lizitatzailleek formula optimizatzeke eskaintzak aurkeztea, botere adjudikatzaileari dagokio formularen eragina aurreikustea, ondoren ezin baitira interpretatu.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/54_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia54_2024.pdf

- 064/2024 Erabakia, 2024ko apirilaren 4koa. Bilboko Udaltzaingoarentzat ibilgailuak jabetzan eskuratzea

Ebazpenaren laburpena: Adjudikazioa. Motibazioa eta diskrezionalitatea: doktrina orokorra; diskrezionalitate teknikoaren erabileraren gaineko mugak errespetatu dira. Zuzenketak eta argibideak: doktrina orokorra; esleipen-irizpide bat egiaztatzeke dokumentu desegokia froga-ikuspuntutik; zuzenketak proposamena berregitea lekarke, eta eskaintza behar bezala aurkeztea lizitatzailleari bakarrik dagokio.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/64_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia64_2024.pdf



- 065/2024 Erabakia, 2024ko apirilaren 4koa. Bilboko Udaltzaingoarentzat ibilgailuak jabetzan eskuratzea

Ebazpenaren laburpena: Adjudikazioa. Lizitatzaillearen legitimazio aktiboa, izaera irmorik gabe baztertua, ez dauka, baldin eta uziaren balizko baiespenetik onura ukigarririk ondorioztatzen ez bada (prozedura ezereztea edo adjudikatu gabe uztea).

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/65_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia65_2024.pdf

Kontuen Auzitegia

- Ebazpena, 2024ko apirilaren 29koa, Kontuen Auzitegiko presidentearena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2024ko apirilaren 25eko Osoko Bilkurak hartutako erabakia, Europako Parlamenturako 2024ko ekainaren 9ko hauteskundearen kontabilitateak fiskalizatzearen inguruko jarraibidea onartzekoa. (2024ko maiatzaren 3ko BOE)

Europako Parlamenturako hauteskundeak egingo dira 2024ko ekainaren 9an, apirilaren 9ko 363/2024 Errege Dekretuak deialdia eginda. Errege-dekretu horren 6. artikularen arabera, hauteskundeek Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituko diote, eta horren garapen-araudiari.

Kontuen Auzitegiaren Osoko Bilkurak 2023ko abenduaren 20an onartu zuen 2024rako Fiskalizazio Programak, lege-aginduz egin beharreko fiskalizazioei buruzko atalean, barne hartzen du Europako Parlamenturako 2024ko ekainaren 9ko hauteskundearen kontabilitateak fiskalizatzea.

Halaber, Osoko Bilkurak, Kontuen Auzitegiaren Funtzionamenduari buruzko apirilaren 5eko 7/1988 Legearen 3.g) artikulua esleitzen dizkion eskumenak betez, fiskalizazio-prozedura horrek bete behar dituen zuzentarau teknikoak onartu ditu.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/05/03/pdfs/BOE-A-2024-8900.pdf>



Datuak Babesteko Espainiako Agentzia

- Espediente-zk.: EXP20230791. BORONDATEZKO ORDAINKETA-PROZEDURA AZKENTZEKO EBAZPENA.

Agentziak hauxe ondorioztatzen du: Informazioaren jatorria Jódarreko Udalaren egoitza elektronikoa bera izatea ez da eragozpen alderdi erreklamatuaren erantzukizunetik salbuesteko; izan ere, zehapen-prozedura honen gaia alderdi erreklamatuaren ardurapeko tratamendua da, hots, jodaractualidad.com webgunean argitaratutako agiriaren sinatzaileen IFK ezagutaraztea.

Azken batean, agiri hori webgunean argitaratu aurretik, Egiaztapen Kode Segurua kendu behar zuen alderdi errekerituak, eta IFK ikusgai ez egoteko bitartekoak baliatu behar zituen.

Prozesuaren une honetan dauden ebidentzien arabera, eta prozeduraren instrukzioaren ondorioak ezertan eragotzi gabe, ebatzi da alderdi erreklamatuaren portaera DPBOren 5.1.c) artikuluaurren urraketa izan litekeela, eta 2016/679 Erregelamendu horren 83.5.a) artikuluan tipifikatutako arau-haustea izan litekeela.

<https://www.aepd.es/documento/ps-00099-2024.pdf>

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Europako araudia

- 2024/1183 (EB) Erregelamendua, 2024ko apirilaren 11koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zeinaren bidez aldatzen baita 910/2014 (EB) Erregelamendua, nortasun digitalaren Europako esparrua ezartzeari dagokionez. (2024ko apirilaren 30eko DOUE)

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=cellar:459993a1-068e-11ef-a251-01aa75ed71a1>



- 2024/1264 (EB) Erregelamendua, 2024ko apirilaren 29koa, Kontseiluarena, zeinaren bidez aldatzen baita 1467/97 Erregelamendua (EE), gehiegizko defizitaren prozedura azkartu eta argitzeari buruzkoa. (2024ko apirilaren 30eko DOUE)

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=cellar:bc52f2ef-068e-11ef-a251-01aa75ed71a1>

- 2024/1261 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2024ko martxoaren 11koa, Batzordearena, zeinaren bidez osatzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/741 (EB) Erregelamendua, arriskuaren kudeaketako gako-elementuen zehaztapen teknikoek dagokienez. (2024ko maiatzaren 5eko DOUE)

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=cellar:266c5b4a-0cd4-11ef-a251-01aa75ed71a1>

- 2024/1232 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2024ko martxoaren 5koa, Batzordearena, zeinaren bidez osatzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/2371 (EB) Erregelamendua, prebenitu, prestatu eta erantzuteko estatu-planen aplikazio-egoeraren ebaluazioei eta plan horien eta Europar Batasuneko prebenitu, prestatu eta erantzuteko planaren arteko loturari dagokionez. (2024ko maiatzaren 6ko DOUE)

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=cellar:3c5f5d06-0cd3-11ef-a251-01aa75ed71a1>

Espainiako legeria

Ez da legegintza-jarduketarik egon azken aldi honetan.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Euskal Autonomia Erkidegoa

- **42/2024 DEKRETUA**, apirilaren 16koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak hartutako erabakia, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuaren bidez zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren arloan (nazioarteko babes-sistemaren autonomia-fasea) Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoa. (2024ko apirilaren 19ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/04/2401886e.pdf>

- **43/2024 DEKRETUA**, apirilaren 16koa, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia onartzen duena. Erabaki horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak. (2024ko apirilaren 19ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/04/2401887e.pdf>

- **44/2024 DEKRETUA**, apirilaren 16koa, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia onartzen duena. Erabaki horren bidez, irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuak irakaskuntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzen dira (atzerriko goi-mailako hezkuntza-sistemen esparruan lortutako tituluak homologatzea eta baliokidetzat aitortzea). (2024ko apirilaren 19ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/bopv2/datos/2024/04/2401888e.pdf>

- **EBAZPENA**, 2024ko apirilaren 16koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek aurkeztutako 2024. urterako tarifak onartzekoa. (2024ko apirilaren 30eko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/bopv2/datos/2024/04/2402031e.pdf>



- **49/2024 DEKRETUA**, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena. (2024 maiatzaren 8ko EHAA).

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402159e.pdf>

Arabako Lurralde Historikoa

Ez da araugintza-jarduketarik egon azken aldi honetan.

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Ez da araugintza-jarduketarik egon azken aldi honetan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- **185/2024 Foru Agindua**, apirilaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita 1116/2008 Foru Agindua, abenduaren 18koa, gordailu-entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematikoz enbargatzeko prozedura ezartzen duena. (2024ko apirilaren 29ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/04/29/c2402991.pdf>

Nafarroako Foru Komunitatea

- **36/2024 FORU DEKRETUA**, apirilaren 17koa, ekitaldi publikoei eta jasangarritasunari buruzkoa. (2024 maiatzaren 3ko NAO)

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2024/91/0>



BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGERIA

Andaluziako Autonomia Erkidegoa

- Ebazpena, 2024ko martxoaren 22koa, Andaluziako Parlamentuko Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez agintzen baita Andaluziako Parlamentuko Osoko Bilkuraren 2024ko martxoaren 20ko erabakia argitaratzeko. Erabaki horren bidez, Puerto de Santa María udalerrria (Cádiz) biztanleria handiko udalerrrien antolamendu-araubidean sartzen da (2024ko apirilaren 3ko BOJA).

https://www.juntadeandalucia.es/eboja/2024/64/BOJA24-064-00001-42521-01_00299459.pdf

Aragoiko Autonomia Erkidegoa

- DDJ/314/2024 Agindua, martxoaren 22koa, zeinaren bidez ezartzen baita udalerrrien eta eskualdeen Lurralde Garapeneko Indize Sintetikoa, Aragoiko informazio geografikoari buruzko urriaren 6ko 3/2022 Legeak arautzen duena (2024ko apirilaren 9ko BOA)

<https://www.boa.aragon.es/cgi-bin/EBOA/BRSCGI?CMD=VEROBJ&MLKOB=1325578760707>

Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa

- 2/2024 Legea, apirilaren 11koa, Balear Uharteetako Kargudun publikoen ondare eta jarduketan Gardentasun eta Kontrol Erregistroa sortzekoa. (2024ko apirilaren 26ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/26/pdfs/BOE-A-2024-8369.pdf>

Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa

- 3/2024 Legea, apirilaren 12koa, Gaztela eta Leongo gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroen eta eguneko zentroen luzaroko zainketetarako arreta-eredua arautzekoa. (2024ko maiatzaren 2ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/05/02/pdfs/BOE-A-2024-8834.pdf>



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Kataluniako Autonomia Erkidegoa

- JUS/1053/2024 EBAZPENA, martxoaren 28koa, zeinaren bidez onartzen baita Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko abenduaren 28ko 38/1988 Legearen 52. artikuluan ezarritako zenbatekoak ordaintzea bake-epaitegia duten Kataluniako udalerrietako udalei, organo judizial horien 2024ko funtzionamendurako (2024ko apirilaren 4ko BOC)

<https://portaldogc.gencat.cat/utillsEADOP/PDF/9135/2021330.pdf>

- 6/2024 LEGE DEKRETUA, apirilaren 24koa, Etxebizitza-arloko presako neurriena. (2024ko apirilaren 25eko DOGC)

<https://portaldogc.gencat.cat/utillsEADOP/PDF/9150/2025180.pdf>

Extremadurako Autonomia Erkidegoa

- 2/2024 Legea, apirilaren 12koa, Badajozeko udalerriri biztanleria handiko udalerrien antolamendu-araubidea aplikatzekoa. (2024ko apirilaren 26ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/04/26/pdfs/BOE-A-2024-8368.pdf>

Errioxako Autonomia Erkidegoa

- 283/2024 Ebazpena, apirilaren 17koa, Tokiko Politika, Azpiegitura eta Despopulazioaren aurkako Borrokarako Sailarena, zeinaren bidez onartzen baita Tokiko Politika eta Despopulazioaren aurkako Borrokarako Zuzendaritza Nagusiaren 2023-2025 aldirako Jarduketan Plan Estrategikoaren laugarren aldaketa (2024ko apirilaren 19ko BOR)

https://ias1.larioja.org/boletin/Bor_Boletin_visor_Servlet?referencia=29169397-1-PDF-561001



JURISPRUDENTZIA

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

- Epaia, 2024ko urtarrilaren 18koa. Lehenengo Sala. Auzigaia: C-631/22.

Justizia Auzitegiak (lehenengo salak) hau adierazten du: Kontseiluaren 2000ko azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzentarauaren (enpleguan eta lanbidean tratu-berdintasuna bermatzeko esparru orokorra ezartzeari buruzkoaren) 5. artikulua, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. eta 26. artikuluen eta Europar Batasunean Kontseiluaren 2009ko azaroaren 26ko 2010/48/EE Erabakiaren bidez onartu zen Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren (New York, 2006ko abenduak 13) 2. eta 27. artikuluen argitan, honela interpretatu behar da: artikulua horren aurkakoa da estatu-arau oro, baldin eta ezartzen badu enpresaburu batek lan-kontratu bat amaitu dezakeela langilea kontratu horri lotutako atazak egiteko ezintasun iraunkorreko egoeran badago, lan-harremanak iraun bitartean sortutako desgaitasun bat dela medio, eta enpresaburua ez dagoela behartuta arrazoizko doikuntza alde zurretik aurreikusi edo egitera.

<https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?text=&docid=283395&pageIndex=0&doclang=ES&mode=req&dir=&occ=first&part=1&cid=3826808>

Konstituzio Auzitegia

- **44/2024 INFORMAZIO OHARRA. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN OSOKO BILKURAK KONSTITUZIO-KONTRAKO ETA DEUSEZ IRITZI DIO TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN LEGEA ALDATZEN DUEN 2022RAKO ESTATUKO AURREKONTU OROKORREN LEGEAREN MANU BATI.**

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak, gehiengoz, Espainiako Kongresuko Popularren parlamentu-taldeko berrogeita hamarretik gora diputatuk sustatuko konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa baietsi du. Errekurtsogaia hauxe zen: 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen azken xedapenetako lehenengoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzekoa.

Xedapen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, araudi autonomikoan ezarritakoari jarraikiz aplikatuko dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen gainean xedatzen dituen ahalmenak, tartean, hautaketa-ahalmena, lurralde autonomikoan hutsik dauden lanpostu horiek betetzeko



enplegu-eskaintza publikoak onartzekoa, hutsik dauden lanpostu horiek betetzeko prozesuen deialdi eskusiboak egitekoa, lanpostuak betetzeko prozesu horietan funtzionarioak izendatzeko ahalmena, lehen destinoa esleitzekoa eta administrazio-egoerak esleitzekoa.

<https://www.cosital.es/images/nota-informativa-44-2024.pdf>

- 49/2024 Epaia, apirilaren 8koa.

Mohamed El Bachiri jaunak sustatutakoa, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien eta Valentziako autonomia-erkidegoko Auzitegi Nagusiaren salek eta Valentziako jurisdikzio-ordena bereko epaitegi batek emandako ebazpenak direla kausa, Espainiatik kanporatzea xedatzen zuen administrazio-ebazpen zehatzaileari aurka egitea ezetsi zuten eta.

Legezketasun zehatzaileako eskubidearen urraketa: 47/2023 KAE (zehapen-arauaren aplikazio arazoigabea, isunaren aurretik kanporatzea jarrita, eskubidearen berme materiala urratu zuena).

https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/eu/Resolucion/Show/30138#complete_resolucion

- 59/2024 Epaia, apirilaren 8koa.

J.E.A. andreak sustatutakoa, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak emandako autoa dela kausa, COVID-19aren aurkako txertoa ematea erabaki zuten eta.

Osotasun fisikorako eta benetako babes judizialerako eskubideen ustezko urraketa: 148/2023 KAE [adingabe baten interesen haztaperen egokia egin zuten zenbait ebazpen judizial (38/2023 KAE)].

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/eu/Resolucion/Show/30145>



- 61/2024 Epaia, apirilaren 9koa.

Ali Aarrass jaunak sustatutakoa, Auzitegi Goreneko eta Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien salek justizia-administrazioaren ondarezko erantzukizunari buruzko prozedura batean emandako ebazpenak direla kausa.

Benetako babes judizialerako eskubidearen urraketa (jurisdikziorako sarbidea), torturarik zein tratu gizagaberik edo umiliagarrikerik ez pairatzeko eskubidea dela eta: mamiari buruzko adierazpena ukatzea, oinarri hartuta ekintza desgoki baten gauzatzea eta Nazio Batuen batzordeen irizpenek kalte-ordainerako eskubidea automatikoki sortzen duten titulu betearazleak ez direlako iritzia. Boto partikularra.

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/eu/Resolucion/Show/30147>

- 62/2024 Epaia, apirilaren 10ekoa.

Joaquim Torra i Pla jaunak sustatutakoa, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren autoa dela kausa, gerora sortutako hautaezintasun-arrazoia eta, ondorioz, Kataluniako Parlamentuko diputatu hautetsiaren egiaztagiriaren galera etetea ukatu zuen eta.

Benetako babes judizial, parte-hartze eta ordezkari politiko eta errugabetasun-presuntziorako eskubideen urraketa alegatu zen (benetako babesa eta zuzenbidean oinarritutako ebazpena), pentsamolde-, adierazpen- eta bilera-askatasunekin lotuta: babes-prozesua azkentzea, objektua gerora galdu delako.

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/eu/Resolucion/Show/30150>

- 63/2024 Epaia, apirilaren 10ekoa.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren laugarren atalak planteatutakoa, Lan-arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legearen zenbait manuren inguruan.

Berdintasunerako eta sindikatu-askatasunerako eskubideak: zati batean ezetsi da konstituzio-kontrakotasuneko arazo; sindikatuei tratu berezia ematea, ordezkari handiagogatik edo dagokion jardun-eremuko ordezkari zarengatik, objektiboa eta arrazoizkoa da.

<https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/eu/Resolucion/Show/30148#ficha-tecnica>



- 65/2024 Epaia, apirilaren 11koa.

Gobernuko presidentek aurkeztua, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzen duen urriaren 21eko 17/2021 Foru Legearen artikuluko bakarreko 2. eta 65. apartatuak direla kausa.

Kontratazio publikoaren arloko eskumena: konstituzio-kontrakotasuneko prozesua zati batean azkentzea; foru-manuaren deuseztasuna, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aplikazio-esparrutik kanpo dauden negozioen zehaztapenaren oinarritzko izaera aintzat hartu gabe, izaera hori hedatzen duelako estatuko legegileak aipatutakoez bestelako zerbitzu juridikoetara.

https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/eu/Resolucion/Show/30151#complete_resolucion

Auzitegi Gorena

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 3576/2022) Auzitegi Gorenaren 1260/2022 Epaia, 2022ko urriaren 6koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak hauxe ondorioztatzen du: berariazko ebazpenaren jakinarazpen-data hartu behar da kontuan, iraungipenaren ondorioen azken eguna zenbatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a77594aa9bce75dba0a8778d75e36f0d/20221021>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2245/2023) Auzitegi Gorenaren 626/2023 Epaia, 2023ko maiatzaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak gogorarazten du eraginkortasun-printzipioaren oinarria dela Espainiako zuzenbidea Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera interpretatu behar dela; hala, Europar Batasuneko zuzenbideak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak eraginkorrak dira erabat, azken batean, aipatu printzipioa emaitzari lotuta baitago. Azken finean, Europar Batasuneko ordenamenduak aitortutako eskubideen barne-ordenamenduak, prozesua arautzean, ezin ditzake barnean hartu Europar Batasuneko araudiak emandako eskubideak baliatzea eragozten edo biziki zailtzen duten eskakizunak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9efb8351fe4a83fda0a8778d75e36f0d/20230605>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 4731/2023) Auzitegi Gorenaren 1407/2023 Epaia, 2023ko azaroaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak hauxe ondorioztatzen du: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.s) artikuluko eskumen-esleipenari buruzko hondar-klausularen arabera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.s) artikuluari dagokionez, alkateak desjabetze-arloko ekintza judizialak gauzatea erabakitzeke eskumena du, eta, bereziki, desjabetze-epaimahaiak desjabetze-espediente batean lege bidez hartutako balio justuari buruzko erabakia aurkaratu nahi denean, AAJLren 45.2.d) artikuluan adierazitako eskakizuna betetzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/004c01c465b87576a0a8778d75e36f0d/20231124>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1786/2024) Auzitegi Gorenaren 381/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak hauxe ondorioztatzen du: zenbait adjudikazio-irizpide haztatu badira kontratu jakin batzuk adjudikatzeko, indarreko Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ez dago ezer baldintza-agirietan eskaintza ekonomikoen balorazioa mugatzen duten asetahun-indizeak edo -atalaseak finkatzea eragozten duenik, baldin eta kontratuaren objektua diren prestazioei buruzko espedientean justifikatuta badaude eta adjudikazio-irizpideei buruzko lege-xedapenak zein kontratazio publikoaren arloko printzipioak betetzen badituzte.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cb274e6623441ecda0a8778d75e36f0d/20240415>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 862/2023) Auzitegi Gorenaren 69/2023 Epaia, 2023ko urtarrilaren 25koa. Gizarte-arloko Sala.

Salak 2017ko azaroaren 28ko KAEn ezarritako doktrina gogorarazten du; alegia, aldi baterako lanpostuak ez dira egokiak borondatezko eszedentzia hartu dutenak berriro lanera itzultzeko, horien lan-harremana finkoa edo mugagabea bada.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5b9969a7d64dd146a0a8778d75e36f0d/20230323>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1782/2024) Auzitegi Gorenaren 525/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 1koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: 1 TIGak Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen 143.4.a) artikulua araberaz ibilgetzeko, ez da beharrezkoa zehapen-prozedurarik batere abiaraztea; izan ere, ibilgetzeaz bat abiarazten baita, eta, horretarako, aski da udaltzainek egindako akta.

2. Lurreko Garraioaren Antolamenduari buruzko Legearen 143.4.a) artikuluan xedatzen den ibilgetzeak ez ditu TIGak diskriminatzen taxiekiko, taxiari berehalako babes eman nahi baitzaio, zerbitzu publikoa den aldetik, udaltzainek arau-hauste oso astun bat egin dela hautematean, eta arau-hausteak TIGak taxietatik bereizten dituen elementu funtsezko bati eragiten dionean.

3. Lurreko Garraioaren Antolamenduari buruzko Legearen 143.4.a) artikuluan xedatzen den ibilgetzea kautelazko edo behin-behineko neurria den heinean, ez da erabat ezarritako zehapen bat, errugabetasun-printzipioa urratzen duena udaltzainen erabakia zantzueta oinarrituta egoteagatik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d0ba7eab95d1edc0a0a8778d75e36f0d/20240415>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1800/2024) Auzitegi Gorenaren 530/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 3koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak doktrina hau berretsi du: *Espainiako Konstituzioaren 19. artikulua aldarrikatzen duen zirkulazio-askatasunari eragiten diote oinarritzko eskubideak —kasu honetan, zirkulazio-askatasuna— mugatzen dituzten erabakiek, epaian egiaztatzen bada ordenamendu juridikoa urratu egin dela, aurkaratu den administrazio-jarduketara gauzatu duen organoak horretarako eskumenik ez duelako.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9bd667cf4fa73ee8a0a8778d75e36f0d/20240415>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1876/2024) Auzitegi Gorenaren 549/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak doktrina hau finkatu du: 1. *Segurtasun-kutxa zigilatzeak neurria babesten du Zergen Lege Orokorren 146.1 artikulua, Tributu Ikuskaritzaren Erregelamendu Orokorren 181.2 artikuluari dagokionez.*



2. *Ikuskaritzapekoak banku-entitate batean alokatutako segurtasun-kutxa ezin daiteke hartu Espainiako Konstituzioaren 18.2 artikuluan aipatzen den etxebizitza konstituzionalki babestuzat.*

3. *Segurtasun-kutxaren zigiluak ikuskaritzapekoaren intimitate pertsonal eta familiarrari eragin diezaioke (Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua); beraz, zerga-administrazioak segurtasun-neurri horren proportzionaltasuna, egokitasuna eta premia justifikatu beharko ditu. Jakina, segurtasun-neurri hori aldi baterako eta aldagarria izango da.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/af5f6e6ccbba9a24a0a8778d75e36f0d/20240418>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1792/2024) Auzitegi Gorenaren 548/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *1. Mendekotasun-egoera izateko eskubidea aitortu zaion pertsonaren heriotzak ezinbestean azkentzen du prestazioak jasotzea, behin horiek zehaztu eta aplikatuta.*

2. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsona izatearen ondoriozko eskubidearen titulartasuna jada eskuratu duena hiltzen bada Arreta Programa Indibiduala onartu baino lehen, onar liteke haren kausadunen aldeko kreditu-eskubidea sortzea, baldin eta euren baliabideekin estali baidute eskubide gisa zehaztu ez baina aitortutako prestazioa zatekeena.

3. Horrenbestez, prozedura-ondorioetarako, kausadun horiek prozedura Arreta Programa Indibidualaren onarpenarekin amaitzeko eskubidea dute, onuradunak, hil ez balitz, jasoko zukeen prestazioa zehazteko. Kausadun horiek prozedurako interesdun-izaeraren oinordeko dira, eta horien interesa izango da onuradunak, edo oinordekoak, bere baliabideekin finantzatu dituen gastuen itzulketa eskatzea; izan ere, aipatu programa onartu izan balitz, ez zituzketen gastu horiek izango, izan guztiak, izan zati bat.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/754216886a42a225a0a8778d75e36f0d/20240415>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1930/2024) Auzitegi Gorenaren 555/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *karrera fiskalak ez du aitortzen lansari-desberdintasunen ordaina jasotzeko eskubidea, baldin eta berdintasunezko auzi-banaketa egin bada kategoria desberdineko funtzionarioen artean.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c4ed368cb4b3de50a0a8778d75e36f0d/20240424>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1709/2024) Auzitegi Gorenaren 561/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak doktrina hau gogorarazi du: tributu-likidazio bat erabat ezeztatzen bada funtsezko akats bat dela medio, egin liteke likidazio berri bat. Horretarako, Administrazioak ikuskaritza-prozedura berri bat hasi beharko du, beharrezko baderitzo, eta likidazio-akordio berria emango du dagokion tributu-ahala baliatuta, muga hauekin: preskribatuta ez egotea, *reformatio in peius* ez izatea eta akats bera ez errepikatzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fa6cac65b0c8a35aa0a8778d75e36f0d/20240412>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1853/2024) Auzitegi Gorenaren 563/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 5koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak ezetsi egin du estatu legegilearen ondarezko erantzukizuna, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko 182/2021 Epaia oinarri hartuta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/14661ab0a726789da0a8778d75e36f0d/20240418>



- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1931/2024) Auzitegi Gorenaren 587/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *karrera judizialeko kide batek, epaile kategoriakoa izanik, ezin jaso dezake magistratu baten soldata, oinarrizko ordainsari gisa, organo judicial batean magistratu kategoriari atxikitako plaza bat betetzen duenean.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8a814673ee0b3368a0a8778d75e36f0d/20240424>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1872/2024) Auzitegi Gorenaren 585/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak hauxe ondorioztatzen du: ezin dira konparatu magistratu kategorია duena eta magistratu izan gabe magistratu plaza bat betetzen duena; beraz, ezinbestean deuseztatu behar da instantziako epaia, eta, instantziako epaileen posizioan jarrita, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezetsi behar da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b760ccbcbce47dfe8a0a8778d75e36f0d/20240418>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1865/2024) Auzitegi Gorenaren 597/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak doktrina hauxe berretsi du: *aldizkako langile finkoek Administrazioan aurretiaz emandako zerbitzuak zenbatzeko, kontuan hartu behar da lan-harremanaren iraunaldi osoa.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9542aef5ac1476b5a0a8778d75e36f0d/20240418>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2024/2024) Auzitegi Gorenaren 600/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak doktrina hauxe berretsi du: *Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak finkatutako doktrina kontuan hartuta (2023ko ekainaren 8ko Epaia, C-50/21 auzia), ulertu behar da ITG/taxi baimenen muga orokorrak (1/30 proportzioa) ez duela urratzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulua, ezin baita hartu taxiaren sektoreari emandako estatu-laguntza inplizituztat, eta ITG/taxi baimenen muga (aipatu proportzioan) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 49. artikuluan adierazitako*



ezartzeko askatasunaren aurkakoa dela, salbu eta egiaztatzen bada, batetik, muga hori aproposa edo egokia dela garraioaren, zirkulazioaren eta espazio publikoaren kudeaketa onaren eta ingurumen-babesaren helburuak betetzeko, eta, bestetik, helburu horiek lortzeko proportzionala dela.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/aff4c6d89de2b965a0a8778d75e36f0d/20240426>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1845/2024) Auzitegi Gorenaren 594/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Epaiak baietsi du estatu legegilearen ondarezko erantzukizunari buruzko erreklamazioa, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga aplikatzearen ondoriozko kalte eta galerak direla kausa aurkeztu dena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/25298b5e165c6507a0a8778d75e36f0d/20240418>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1863/2024) Auzitegi Gorenaren 599/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salaren xedea zen kasazio-doktrina finkatzea auzi honetarako: *interpretatu, argitu eta zehaztu dadila Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua interpretatzen duen jurisprudentzia; alegia, zer denbora-muga duen administrazio edo organismo publiko batek hautespen-prozesuetan alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agirietan dauden omisioez ohartarazteko, zein subjektu dagoen legitimatuta horretarako, eta zein prozesu-unetarako finkatu behar den alegatutako merezimenduen agiri-gutxiegitasunaren zuzenketa, hautaketa-organoak lehendik ez badu errekerimendurik egin administrazio-bidean.*

Hala ere, epaiak ez du aztertzen aipatu kasazio-arazoa, ez baiteritzo beharrezkoa, errekurtsogileak alegatutako berdintasun-printzipioaren urraketarik ez dago eta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3544193016c87792a0a8778d75e36f0d/20240418>



- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 1867/2024) Auzitegi Gorenaren 612/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *Madrialeko Udaleko mugikortasun-agenteek nahitaez lan egin beharreko jaiegungatik —aldez aurretik ezarritako kopurua— jaso behar duten konpentsazioa berariazko araudian jasotakoa da.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dfd311fc8b524315a0a8778d75e36f0d/20240418>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2002/2024) Auzitegi Gorenaren 610/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *arrazoibide horiek kontuan hartuta, lehen atalak kasazio-errekurtsioa onartuta egindako galderari erantzuteko, ezer baino lehen, zehaztu behar da farmako baten finantzaketa publikoa eskuratzear hitz egitean ez dela ziurtzat jotzen autonomia-erkidegoari dagokiola zerbitzu-zorroa osatu behar duten sendagaien gaineko erabakia hartzea, baizik eta Estatuko Osasun Sistemari, eta horren kide da Extremadurako Osasun Zerbitzua.*

Zehaztaper hori eginda, Cácereseko salaren epaiak horri buruz adierazitakoa ikusita, esan behar dugu ezin egotez dakiokela errekurtsogileari sendagaia baimendu izanaren onura lortu duten beste pazienteen inguruabar indibidualak egiaztatu beharraren karga, eta ezin daitekeela baimena ukatzearen justifikazio objektibo eta arrazoizko askitzat hartu funts publiko bidez finantzatuetakoa bat ez delako baieztapena, ez eta gaixotasunaren gainean eragin mugatuak dituelako aipamen orokorra edo farmazia-gastuaren arrazionaltasunari buruzkoa ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/470b6ade9621bb46a0a8778d75e36f0d/20240426>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2088/2024) Auzitegi Gorenaren 626/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 15ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *federazio-erregelamenduak ez dira administrazio-xedapen orokorrak; beraz, behin federazio-egoitzan onartuta, kasuan kasuko kirol-federazioak sus-tatutako onarpen-prozedura bat hasten da —gaur egun, berrespen-prozedura— Kirol Kontseilu Gorenaren aurrean. Hala, 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan ezarritako epean ebatzen ez bada, ulertu behar da administrazio-isiltasunez onartu dela.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/442c1c2fb02d89d8a0a8778d75e36f0d/20240503>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2085/2024) Auzitegi Gorenaren 635/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau berretsi du: *asilo-arloko kautela-babesari buruzko Espainiako legedia, adierazitako eran, Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera interpretatu daiteke, kautela-neurriak hartzeko araubide orokor bat barne hartzen duelako, zeinak aukera ematen baitio jurisdikzio-organoari 2013/32 Zuzentarauaren 46.5 artikuluan arau orokor gisa ezarritako jurisdikzio-errekurtsoa jartzearen ondoriozko etete-ondorio automatikoa baliarazteko. Horrek diraueno, asilo-eskatzailearen estatutuari eutsi dakiok, horrek dakarren guztiarekin (Espainian jarraitzea eta harrera-baldintzei eustea), 6. apartatuan xedatutako salbuespenak xehatuki aintzat hartuz.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b0598ac9e700295fa0a8778d75e36f0d/20240503>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2019/2024) Auzitegi Gorenaren 648/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak hauxe ondorioztatzen du: *aztertu den tasa —Madrileko Udalak eskatzen du zerbitzu publiko jakin batzuk emateagatik; alegia, udal-galerien zaintza, kontserbazioa edo konponketa, galeria horien erabiltzaileei eragiten dizkietenak— bateragarria da lurzoruan, zorupean edo lurgainean interes orokorreko hornidura-zerbitzuak edo auzotar guztiei edo askori eragiten dieten hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde eraturako erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia kargatzen duen tasarekin*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/799367426e1c32efa0a8778d75e36f0d/20240426>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2023/2024) Auzitegi Gorenaren 643/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *hirugarren perituaren lansariak gordailutzen ez badira, Tributuen Lege Orokorren 135.3 artikuluko laugarren paragrafoaren arabera, beste alderdiaren perituaren balorazioa onartu beharko da; hori dela kausa, zergadunak ezingo du judizio-bidean zalantza jarri likidazio-akordioa oinarritu den balioa.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3172ba419e39809da0a8778d75e36f0d/20240426>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2008/2024) Auzitegi Gorenaren 659/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *horiek horrela, kasazio-intereseko arazoari erantzunez, doktrina hau finkatzen dugu: «industria-jarduketa» sintagma, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 98.1.f) artikuluan jasota dagoena, elektrizitatearen gaineko zergaren zerga-oinarria murriztu ahal izateko, Kontseiluaren 2003ko urriaren 27ko 2003/96/EE Zuzentarauaren argitan interpretatu behar da. Zuzentarau horren bidez berregituratzen da energia-produktuak eta elektrizitatea zergapetzeko Europar Batasuneko araudia, testuinguruaren eta lortu nahi den helburuaren arabera; hala, estatuko legegileak zerga-oinarria murriztu dezake, baina soilik industria-jarduketan kasuan, eta industria-jarduketak Industriaren 21/1992 Legearen 3. artikuluan zehazten dira berariaz eta izaera orokorrez.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b7c9f11b816b19d9a0a8778d75e36f0d/20240426>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2089/2024) Auzitegi Gorenaren 654/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau berretsi du: *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen bigarren xedapen iragankorraren interpretazioa: erretiro-prestazioa PFEZean lan-etekin gisa sartzearen murrizketa bere garaian murriztu edo gutxitu ezin izan ziren ekarpen haietan baizik ezin daiteke aplikatu, ez egindako kotizazio guztietan.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/31cdfebb9b65f687a0a8778d75e36f0d/20240503>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2017/2024) Auzitegi Gorenaren 650/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *Administrazioak dagokion likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko eskubidea du, eta horren preskripzio-epaia lau urtekoa da (Tributuen 58/2003 Lege Orokorren 66. artikulua). Epe hori datatik datara zenbatu behar da, epe horren azken eguna baliouduna edo baliogabea den kontuan hartu gabe.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a978ee00d1208798a0a8778d75e36f0d/20240426>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2069/2024) Auzitegi Gorenaren 653/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak gogorarazten du Espainiako zuzenbidean udalei ez zaiela aitortzen Estatuko Administrazio Orokorren edozein egintza edo xedapen orokor administrazioarekiko auzibidean aurkaratzeko zilegitasun orokorrik, eta mota horretakoa da prozesu honetan auzigai den errege-dekretua. Hori bai, xedapen orokor horren aurka egin dezakete, haien autonomia-esparrua kaltetzen badu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3715a5045ace2d0ea0a8778d75e36f0d/20240502>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2070/2024) Auzitegi Gorenaren 660/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.



Epaia estatutu legearen ondareko erantzukizunaren erreklamazioa ezesten du, demandatzaileak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2022ko urtarrilaren 27ko Epaian funtsatzen zuena (C-788/19 auzia). Epai horrek ebatzi zuen PFEZaren Legearen 39.2 artikulua ez zela Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3273f7001876842da0a8778d75e36f0d/20240502>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2012/2024) Auzitegi Gorenaren 662/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *bilera- eta manifestazio-eskubidea baliatzea mugatu dezakete beste oinarrizko eskubide batzuek, eta gobernu-agintaritzak uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoak ematen dizkion ahalak egikaritu behar ditu, halako moldez, non batzuk eta besteak uztartuko baititu, hala ez bada sortuko den gatazka eta kaltea agerikoak direnean.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e7e857bfb8de19f9a0a8778d75e36f0d/20240429>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2014/2024) Auzitegi Gorenaren 663/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 18koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak kasazio-doktrina hau berretsi du: *1. Bitarteko estatutupeko langileen kasuan, lanbide-karreraren gradua aitortzearen ondorioetarako, esparru-akordioaren 4. klausularen arabera, aitortza horretarako behar den zerbitzu-denbora kasuan kasuko langilea izendatzen duen osasun-zerbitzuan igarotakora mugatu behar da, muga hori langile finkoari ere jartzen bazaio; aldiz, diskriminazioa gertatuko da estatutupeko langile finkoak gradu-igoera lortzeko behar duen zerbitzu-denbora Estatuko Osasun Sistemari igarotako zerbitzu-denborari badagokio.*

2. Bitarteko estatutupeko langileen kasuan, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren 40.2 artikuluan jasotako lanbide-karrerako elementuei dagokienez, lan egindako beste osasun-zerbitzu batean eskuratu eta finkatu direnak ere aitortu behar dira, salbu eta jada iraungitako estatutu-harreman baten bidez lan egin den osasun-zerbitzuen berariazko ezagutzak, esperientziak edo helburu-betetzeak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0a09747abe1d7007a0a8778d75e36f0d/20240426>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: KAE 2009/2024) Auzitegi Gorenaren 678/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak kasazio-doktrina hau finkatu du: *destino esleiturik gabe erreserban dauden guardia zibilek ez dute eskubiderik Barne Arazoetako Ministerioak eta guardia zibilen eta polizia nazionalen elkarre profesionalak 2018ko martxoaren 12an egindako akordioan xedatzen den soldata-parekatzea jasotzeko.*

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d4046b8c8610e181a0a8778d75e36f0d/20240426>

Auzitegi Nazionala

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: ANE 1780/2024) Auzitegi Nazionalaren Epaia. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak administrazio onaren printzipioari buruzko doktrina gogorarazten du: Administrazioak zalantzak bazituen izaera horri buruz, AGk dioen legez, administrazio onaren printzipioa tartean dela kontuan hartuta, eskatzaileari informazio gehiago eskatu behar zion edo AEBrekin informazioa trukatzeko bideetara jo behar zuen. Alde horretatik, AGren doktrina argia eta jarraitua da, errekurtsogileak froga-ahalegin handia egin duela besterik ezin daiteke esan; beraz, Administrazioak zalantzak bazituen, besteak beste, Hitzarmenean ezarrita dauden mekanismoak erabili behar zituen, eta ez du halakorik egin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0a9c0f8c5901fb57a0a8778d75e36f0d/20240507>



Justizia-auzitegi nagusiak

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEJANen 73/2024 Epaia) EAEko JANen 704/2024 Epaia, 2024ko martxoaren 19koa. Gizarte-arloko Sala.**

Salak hauxe ondorioztatzen du: ez da inola ere urratu demandatzailearen benetako babes judizialerako oinarrizko eskubidea. Baiki, demandatzaileak establezimenduko bideozaintzako kamerek grabatutako irudiak ahozko epaiketa hasi baino lehen ikusi ezin izateak ez du eragiten alegatu den defentsa-gabezia. Izan ere, aurkaratu den epaiak dioen legez, ahozko epaiketan ikusi ziren aipatu irudiak, eta, horri esker, instantziako magistratuak aukera izan du, arrazoitu duen eran, jazotako gertakariak egiaztatutzat jotzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ceb7b6ef3583d6e2a0a8778d75e36f0d/20240506>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEJANen 75/2024 Epaia) EAEko JANen 1040/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 23koa. Gizarte-arloko Sala.**

Salak ezetsi egin du Oñatiko Udalaren ordezkariak jarritako erregutze-errekurtsoa, kaleratzeari buruzko demanda baiestearen aurkakoa, non kaleratzeari bidegabe iritzi baitzitzaion.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e07b979454b95b9ea0a8778d75e36f0d/20240507>

-**EAEko JANen 1009/2024 (Erregutze-errekurtsoa: 282/2024 KAE), 2024ko apirilaren 23koa. Gizarte-arloko Sala.**

Salak ezetsi egin du Euskal Herriko Unibertsitateak jarritako erregutze-errekurtsoa.

<https://www.eudel.eus/docs/Sent%20TSJPV%20Social%2023%20abril%202024.%20Fijeza.pdf>



- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Kataluniako JANen 2003/2024 Epaia) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 602/2024 Epaia, 2024ko otsailaren 26koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Epaia arabera, hautespen-epaimahaien Idazkaritza udalbatzako idazkariak bete behar duelako eta, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren arabera, beste funtzionario bati eskuordetu ezin dakiokelako alegazioa ez da zuzena; izan ere, hautaketa-prozedurak arautzen dituen berariazko legediaren ezein artikuluk ez du ezartzen udalbatzako idazkaria izan behar dela hautespen-epaimahaien idazkaria. Ondorioz, agerikoa da aipatu artikulua ez dela aplikatu behar. Halakorik ez da xedatzen ez Kataluniako administrazio publikoen araubide juridikoari eta prozedurari buruzko abuztuaren 3ko 26/2010 Legean, ez Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 16. artikuluan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7c6f6716c5755ed6a0a8778d75e36f0d/20240508>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Madrileko JANen 2796/2024 epaia) Madrileko JANen 317/2024 Epaia, 2024ko apirilaren 10ekoa. Gizarte-arloko Sala.**

Madrileko JANek zati batean baiesten du Madrileko Gizarte-arloko 21. Epaitegiaren epaiaren aurka zenbait eskubide erreklamatzeko jarritako erregutze-errekurtsoa, eta aipatu ebazpena errebokatzen du, lan-harremanari mugagabe ez-finkoaren izaera aitortuta, 2010eko azaroaren 29tik aurrerako antzinasunarekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f87cf568cbafe070a0a8778d75e36f0d/20240422>



TOKIKO MUNDUA EUROPAN

Europako Eskualdeetako Lantaldea

- EEL-K 2023 URTEAN EMANDAKO IRITZIEN INPAKTUA.

Inpaktuari buruzko 2023 urteko txostenak Europako Eskualdeetako Lantaldeak (EEL) Europako erabakiak hartzeko prozesuan egindako lanaren eta izandako lorpenen gaikako ikuspegia eskaintzen du.

https://cor.europa.eu/en/our-work/Documents/Opinions/CoR_Impact_Report_2023_January_2024.pdf

- Irizpena, 160. Osoko Bilkura, 2024ko apirilak 17-18 Tokiko eta eskualdeko enteen gaitasuna, haurtzarora babesteko sistema integratuak ezartzeko

EELk haurtzaroaren babesaren eta pobreziaren arteko lotura azpimarratzen du; izan ere, pobrezia eta gizarte-bazterketak adingabeak egoera ahulagoan jartzen ditu indarkeriaren aurrean. Era berean, nabarmentzen du, Europako Batzordeak haurtzarora babesteko sistema integratuei buruzko gomendioa eman bitartean, beharrezkoa dela haurtzarora egokitutako gizarte-babeseko sistemei lehentasun handia ematea. Orobat, EBk finantzaturako tokiko eta eskualdeko informazio-kanpainak egitea defendatzen du, adingabeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta kalteberatasun ekonomikoa kontuan hartuko dituen haurtzarora babesteko sistema integratuaren gaineko kontzientziazioa handitzeko, gizartearen eta adingabeen onerako izango baita. Gainera, Haurren Eskubideen EBren Estrategia gogora ekarrita, adingabeek euren bizitzatan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartu ahal izatearen garrantzia berresten du, eta estatu kideak zein eskualdeak premiatzen ditu adingabeen parte-hartzea hobetzera maila guztietan, baliabide egokia emanda. Halaber, pozez hartzen du EBren haurren parte-hartzerako plataforma, jardunbide egoki baiteritzo adingabeak eta adingabeekin inplikatzeko, eta adingabeei entzuteko. Tokiko eta eskualdeko enteen kasuan kasuko komunitatean baliatutako indarkeriaren aurrean adingabeak babesteko egindako lana aitortzen du, eta haurtzarora babesteko eta adingabeen aurkako indarkeriaren aurrean zero tolerantziaren kultura sustatzeko neurri komunitarioen garrantzia azpimarratzen du.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2024-00219-00-00-ac-trades.docx/content>



- Irizpena, 160. Osoko Bilkura, 2024ko apirilak 17-18 Tokiko eta eskualdeko enteen gaitasuna, haurtzarora babesteko sistema integratuak ezartzeko Mugaz gaindiko testuinguruko oztopo juridiko eta administratiboak gainditzeko mekanismoa: mugaz gaindiko errazte-tresna.

EELk estatu kideei eskatu die Erregelamenduari buruzko ikusmolde berri batekin negoziatioei ekiteko, kontuan hartuta mugaz gaindiko oztopoak gainditzeak mugaldeko eskualdeen hazkunde ekonomiko oso nabarmena ekarriko lukeela. Eskualdeok dira emaitza ekonomiko okerrekin izaten dituztenak, eta, beraz, bertako herritarrek eta enpresek estatu bereko beste eskualde batzuetako bizi-maila berdina izatea bermatu nahi da.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2024-01008-00-00-ac-tra-es.docx/content>

- Irizpena, 160. Osoko Bilkura, 2024ko apirilak 17-18 Demokraziaren defentsa.

EELk babes irmoa ematen die European demokrazia sustatu, babestu eta indartzeko eta prozesu demokratikoarentzako kanpo-mehatxu erkideei erantzuteko herritarrei eta agintaritzak publikoek behar diren bitartekoak emateko egindako ahaleginei. Halaber, adierazten du tokiko eta eskualdeko enteez ezagutza espezifikoak dituztela prozesu demokratikoaren osotasunerako mehatxu izan litezkeenak hautemateko, eta European demokrazia indartzen laguntzen dutela herritarrek bizitza publikoan, eta, ondorioz, Europako, estatuetakoko, eskualdeetakoko eta tokiko hauteskundeetan parte hartzea sustatuz eta erraztuz. Deitoratzen du alderdi horiek ez direla aitortzen Europar Batasunaren mailan European demokrazia indartzeko aurkezten diren ekimenetan. Orobat, kezka adierazten du proposatzen den zuzentarauaren balizko eraginaren gainean, kontrako ondorio neurrigabeak izan ditzakeelako, demokraziarentzako mehatxu errealei eraginkortasunez aurre egiten ez dienez. Gainera, Europako Batzordeari eskatzen dio lehentasuna emateko tokiko eta eskualdeetakoko enteekin elkarlanean aritzeari, EBn demokrazia eraginkortasunez babesteko.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2024-00087-00-00-ac-tra-es.docx/content>



- Irizpena, 160. Osoko Bilkura, 2024ko apirilak 17-18 Etxebizitza adimendun, jasangarri eta eskuragarria, tokiko enteei askotariko erronkei aurre egiteko tresna gisa.

EELk ohartarazten etxebizitzaren gainkostua kaltegarria dela tokiko eta eskualdeetako ekonomietarako bezala merkatu bakarraren barneko mugikortasunerako ere. Kualifikatuta daudenek eta tituludunek eragozpen ekonomikoak izaten dituzte euren esparruko aukera profesionalak eskaintzen dizkieten lekuetara joateko; beraz, eskatzen du orotariko etxebizitza eskuragarriak ematera bideratutako egungo ekimenei modu eraberritu batean arreta emateko, eta hori gauzatzeko pizgarri finantzarioak emateko, horrek tokiko eta eskualdeko enteei behar dituzten tresnak emango lizkiekeelako egungo krisiei aurre egin diezaieten. Halaber, eskatzen du Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) baliabideak bideratzeko etxebizitza sozial berrien eraikuntzara, eraikinak birgaitzera eta horien biziguneak berroneratzera Europako eskualde guztietan. Orobat, eskatzen du EBren eta estatu kideen, eskualdeen eta toki-administrazioen politiken arteko koordinazioa hobetzeko, eta Europar Batasunerako etxebizitza-agenda bat abian jartzeko. Baita ere, eskatzen du Europako Seihilekoak areago har ditzala gogoan hiri-arloko gaiak. Adierazten du etxebizitza-eraikinen sakoneko berritzeen tasa etxebizitzarako ez diren eraikinen baina txikiagoa dela. Halaber, eskatzen du EBko etxebizitza-eraikinen sakoneko berritzeetarako pizgarri gehiago eta finantza-laguntza handiagoa ezartzeko, baita hiri eta eskualdeentzako finantza-laguntza espezifikokoak emateko ere, errefuxiatuen harrerak dakartzan erronkei aurre egin diezaieten, uste baitu etxebizitza egokia edukitzea dela integrazioarako lehen urratsa.

<https://dm-publicapi.cor.europa.eu/v1/documents/PWMHTDDKQ3QZ-2021419539-7546/download> --

- Ebazpena, inor atzean utziko ez duen 2027az geroko kohesio-politika berri bati buruzkoa. EELren erantzunak Kohesio Politikaren Funtsari buruzko Goi Mailako Taldearen txostenari eta kohesioari buruzko bederatzigarren txostenari. 160. Osoko Bilkura, 2024ko apirilak 17-18

EELk pozez hartzen ditu Goi Mailako Taldearen txostena eta kohesioari buruzko bederatzigarren txostena, kohesio-politikaren etorkizunari buruzko eztabaidari ekarpen irmoa egiten diotelako. Gogorarazten du «ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa» EBren funtsezko helburuetako bat dela, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 3. artikuluan aldarrikatzen dena, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 174. artikulua helburu hori aipatzen duela, Europako eskualdeen arteko desparekotasunak murriztuko dituzten toki-oinarriko politikak egin behar direla xedatzen baitu, betiere elkartasun-asmoz eta subsidiariotasun-xedez.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2024-00548-00-00-res-tras-es.docx/content>



- Irizpena, 160. Osoko Bilkura, 2024ko apirilak 17-18 Haurrak areago gizarteratzea, Europako Haurren Bermea aplikatuta toki eta eskualde mailan.

EELk kezka adierazten du haurren pobreziaren inguruan, gaur egungo erronka sozial larrienetako bat denez. EBko biztanleen % 20 haurrak dira, eta, horietatik, laurdena inguru pobrezia eta gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dago. Hala, eskatzen du adingabeak dituzten familiei laguntzera bideratutako politikari arreta berezia emateko eta ekintza adostuak gauzatu daitezela, eskubide sozialen Europako zutabearen finkatuta dauden pobrezia murrizteko helburuak bete gabe ez uzteko. Halaber, bizitzako lehen urteetara bideratutako inbertsioen garrantzi estrategikoa nabarmentzen du, pertsona osasuntsuak eta gizarte oparoak garatzeko oinarriak ezarri nahi badira. Gogorarazten du, bereziki, hartu diren neurrien artean, Europako Haurren Bermea, zeinaren helburua baita premia-egoeran dauden haurrei oinarritzko zerbitzuetarako sarbide handiagoa eskaintzea, adingabeen pobreziari eta gizarte-bazterketari aurre egin ahal izateko ikuspegi integral baten mesedetan. Orobat, maila anitzeko gobernantza-eredu bat babesten du, zeinak toki-enteei paper aktiboagoa eta erabakimen handiagokoa emango baitie baliabideen kudeaketan eta gizarte-politika eraginkorren plangintzan, haurren premiei zuzenean erantzuteko.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2023-04650-00-00-ac-tras.docx/content>

- Irizpena, 160. Osoko Bilkura, 2024ko apirilak 17-18 Hedatze-paketea 2023 - Ukraina, Moldavia eta Georgia.

EELk pozez hartzen du Europar Kontseiluak 2023ko abenduaren 14an hartutako erabakia; alegia, Ukraina eta Moldaviako Errepublika atxikitzeke negoziazioak hastea eta Georgiari herrialde hautagaiaren estatutua ematea. Azpimarratzen du hiru herrialde horiek —nola edo hala errusiar erasoarekiko esposizioan hirurak ere— parte hartzen ari diren hedapen-prozesua euren autodeterminazio-eskubidearen adierazpena dela, EBren interes geopolitikoen onerako dela eta europar bake-ordena zabalago bat berreraikitzeke lanen parte dela. Ados dago Europar Kontseiluaren 2023ko abenduaren 15eko ondorioekin; alegia, estatu kide izangaiek erreforma-ekimenak biziagotu behar dituzte, bereziki, zuzenbide-estatuaren esparruan, atxikitze-prozesua merituan oinarritutako prozesua denez, eta EBren laguntza izango dute. Aldi berean, EBk behar diren barne-erreformak eta prestaketa-lanak egin behar ditu, hain zuzen ere, EBko erakundearen eta politiken funtzionamendu arin eta efizientea bermatzeko.

<https://dm-publicapi.COR.europa.eu/v1/documents/cor-2023-05426-00-01-ac-tras.docx/content>



ARGITALPENAK

Udala, 174. zk. Udal Finantzaketa. Udalen partaidetza zerga itunduetan. 2023ko likidazioa EUDEL.



Informazio gehiago hemen: <https://www.eudel.eus/eu/argitalpenak>

- Carta Local 378. zk.: FEMP. 2024ko apirila



Informazio gehiago hemen: <https://www.femp.es/comunicacion/noticias/carta-local-378>



- Blockchain y automatización de procedimientos en la Administración Local.



Egilea: Benjamín Cogollos Ramos

Bilduma: Manuales prácticos, 4

Argitalpen-urtea: 2024

Informazio gehiago hemen: <https://www.cemci.org/publicaciones/blockchain-y-automatizacion-de-procedimientos-en-la-administracion-local-681>

DEIALDI INTERESGARRIAK

- Administrazio-zuzenbideko irakasleen XXIV. Kongresu italo-espainiarra. «Sanidad, Controles, Colaboración y Autonomías. Perspectivas de Reforma»

Antolatzailea: Università di Torino

Scuola di Specializzazione in Studi sull'Amministrazione Pubblica

Data:

2024ko maiatzaren 23tik 25era


Lekua: Università degli Studi di Torino Aula Magna della Cavallerizza Real Via G. Verdi, 9 Torino (Italia)

Informazio gehiago, hemen:

https://www.gobiernolocal.org/Actividades/2024/240523_25_Torino.pdf



- «La prestación de servicios de calidad a las personas mayores en los municipios de pequeño tamaño, como estrategia contra la despoblación»



La prestación de servicios de calidad a las personas mayores en los municipios de pequeño tamaño, como estrategia contra la despoblación

Pazo de San Marcos
c/ San Marcos, 8
27001 Lugo

16 de mayo de 2024

Antolatzailea: Democracia y Gobierno Local fundazioa
Lugoko Diputazioa

Data:
2024ko maiatzaren 16an

Lekua: Pazo de San Marcos, San Marcos 8 (27001 Lugo)

Informazio gehiago, hemen:

https://www.gobiernolocal.org/Actividades/2024/240516_Lugo.pdf